

EUSKARAREN Berripapera

99. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko abuztua

Liburutegi Nazionala aztergai

Jakin-en eta Eusko Ikaskuntzaren sareko aldizkarian gaiaz idatzi dute



Liburutegi Nazionala aztertuz idatzi dute hainbat lagunek *Jakin* aldizkarian. Lau atal nagusitan banaturik ageri dira artikulua: gaiari buruzko iritzi-bilketa, administrazio ezberdinen liburutegi-politika, administrazio bakoitzaren liburutegien egoera, eta liburutegien jardueraren inguruko zenbait arazoren azterketa. Bestek beste, liburutegi nazional, Eusko Jaurlaritzaren liburutegi-politika, Frantziako egoera, Ipar Euskal Herriko liburutegi, EAEko biblioteka publikoen egoera, Nafarroako egoeraren ikuspegi... gaiari buruzko ikuspegi desberdinak ageri dira aldizkarian.

Jaurlaritzaren izenean, Kultura Ondarearen zuzendari Eduardo Estradek, Eusko Jaurlaritzak Liburu eta Liburutegien Zerbitzuaren bidez daraman politikaren berri ematen du, egitasmo nagusien ildoak aipatuz.

Jakin-en alean ez ezik, Eusko Ikaskuntzaren sareko aldizkaria-ren 81. zenbakian ere irakurgai da gaiari buruzko artikulua: *Euskal Biblioteka Nazionala* du izenburu eta Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendari Pruden Gartzia idatzi du.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:
.....
.....
Helbidea:
.....
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:
e-posta:

HABE-liburutegia




Abian da habe-liburutegia posta-zerrenda. Harpidedunek hainbat dokumentu jasotzeko modua dute bertan: eskuratu berrien albiste, bideoen katalogoa, softwarearena, tesiena, eta aldizkako argitalpenen katalogoa. 250 harpidedun inguru ditu posta-zerrendak eta www.egroups.com/group/habe-liburutegia helbidean sartu eta "Subscribe" klikatuz egin lezake hala nahi duenak.

4

Lege-gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038





EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Rikardo Arregi kazetaritza-sariak

2 • Pertsonaia:
Oihane Yustos
• Laburrak:
Ardatza
Bai Euskarari

• Agenda:
Pastoralak Eskiulan

3 • Udako barnetegiak
• Sagitario saria

4 • Liburutegi Nazionala
• HABE-liburutegia

Rikardo Arregi sarien banaketa

Euskal Telebistako *Bertatik bertara* saioa eta Euskadi Irratiko Oihane Yustos kazetaria, saridun

Idatzizko kazetaritza saritzeko sortu ziren Rikardo Arregi sariak, baina 1996az gero irrartian eta telebistan egindako lanak ere saritu dituzte. Aurten, adibidez, Euskal Telebistako *Bertatik bertara* saioak jaso du sari nagusia –milioi bat pezeta, diploma eta oroigarria–, eta 25 urtez beherakoentzako Kazetaritza-saria, berriz, Oihane Yustosek; honek 400.000 pezeta, diploma eta oroigarria jaso zituen uztailaren lehenengoan Andoainen egin zen sari-banaketan.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Allende Boutin, Iñaki Zabaleta, Koldo Ordozgoiti, Joxerra Garzia eta Miren Azkaratek osatu dute epaimahaia, eta Andoaingo alkate Joxe Antonio Barandiaran izan dute epaimahaiburu eta Nekane Goikoetxea idazkari. Rikardo Arregi Kazetaritza sari nagusiaren berri emanez, epaimahaiaren iritzi *Bertatik bertara* saioa berrikuntza, kalitate eta eredugarritasunaren adibide da. “Saioa egunerokoa da, zuzena, adin ezberdinen arteko kohesioa egiten du, eta gazte-taldearen lanak freskotasuna ematen dio. Gainera, animazioaren eta informazioaren arteko oreka lortu du eta solaskideari patxadaz hitz egiteko aukera ematen dio”. Azkenik, saioan euskalkiei ematen zaien tartea ere azpimarratu zuen epaimahaiak. Saioko zuzendari Elixabete Garmendiak eskerrak eman eta telebista-programatik euskaldunen



EUSKALDUNEN EGUNKARIA

artean zubiak egiten saiatu direla esan zuen, eguneroko kontu xumeek duten toki duinaren alde eginez.

Kazetari Berria atalean –hau da, 25 urtez beherakoentzat–, Oihane Yustosek jaso zuen saria, Euskadi Irratiko *Goiz kronika* saioan egindako erreportaiengatik. Epaimahaiak hainbat ezaugarri nabarmendu zituen Oihane Yustos kazetariaren lanetan: gai ugari lantzea, ikuspuntu asko, eta sakon jardun izana. Gainera, kontalariak errespetuz hartu izana ere kontuan hartu zuen epaimahaiak.

RIKARDO ARREGIAREN KAZETARITZA

Xabier Aizpuruak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, irabazleak zoriondu eta beraien merezimenak zalantzan ezin jarri direla esan zuen. Era berean, Rikardo Arregi sariak euskarazko kazetaritzan duten garrantzia azpimarratu zuen eta, adierazi zuenez, Rikardo Arregik ere horrelako kazetaritza egiten zuen, bertatik bertarako, iritzi eta arrazoi truke handia eginez, eta euskaraz. Sailburuordeak lanean irauteko eskatu zien sarituei, euskaldunak euskaraz zerbitzatzen jarraitzeko. Rikardo Arregi bera sarituen lanaz harro zegokeela esanez amaitu zuen.



EUSKALDUNEN EGUNKARIA



EUSKARAREN Berripapera

99. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko abuztua

laburrak

ARDATZA, LAN MUNDUA EUSKARAZ



Lan-munduan euskara zabaldu asmo duen programa sortu dute Eibarren: *Ardatza*. Eibarko Udala, Hobe-tuz Fundazioa eta Eta Kitto! elkarrekin izan dira eragile. Hainbat urrats egin nahi dute enpresen euskalduntzea bultzatzeko. Horien artean dira irudi korporatiboa euskalduntzea, agiriak euskaraz izatea, enpresen arteko harremanak euskaraz bideratzea, e.a. Uda ondoren, irailean, hasiko dira gauzatzen egitasmoa...

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA

Bai Euskarari ziurtagiria jaso dute 425 gizarte-eragilek, euskararen aldeko gutxieneko konpromisoa baiezkoa emateagatik. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko ordezkarien arabera, konpromiso horiek Jaurlearitzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia dute oinarri eta aurrerantzean ere izango ditu emaitza gehiago.

agenda

ABUZTUAREN 5ean, PASTORALA ESKIULAN

Ohi denez, pastoralaren aldia izango da uda. Uztailaren 23an eta abuztuaren 5ean izango da, Eskiulan. *Madeleine de Jaureguiberry* izango da aurten jorratuko duen pertsonaia, idazle eta euskaltzale zuberotarra (Aloze, 1884-Ziboze, 1977). Hainbat aldizkaritan idatzi zuen, Iparraldeko *Begiraleak* euskal emakume nazionalisten taldeko lehendakari izan zen, eta euskararen irakaskuntzako metodoa ere prestatu zuen. Euskaltzain ohorezko izendatu zuten

Pertsonaia

Oihane Yustos, Rikardo Arregi Kazetari Berria saria

Euskadi Irratiko

Goiz kronika saioko kazetari



Rikardo Arregi saria jaso du Oihane Yustosek aurten, Kazetari Berria atalean, hau da, 25 urtez beherako-entzako atalean. Euskadi Irratiko *Goiz kronika* saioan egiten du lan iazko irailetik, ordu erdiko erreportaiak eginez. 1998an hasi zen irratian, bekadun. Urte eta erdi egoera horretan eman eta lanean hasi zen 1999ko udan, albistegietan besteak beste, *Goiz kronika* baino lehen.

Askotariko gaiak lantzen ditu Oihane Yustosek saioan, gaurkotasunezkoak batzuetan, atenporalak beste batzuetan. Interesgarri iruditzen zaizkion gaiak aukeratzen ditu beti. Hainbat zailtasun ere izaten ditu programa burutzeko. Ordu erdiko erreportaiak egiteko gaia aukeratu behar izaten du lehenik. Ondoren, eskema egin eta idazten hasi. Elkarrizketa asko egin behar izaten du saioa osatzeko eta horixe du zailtasunik handiena: elkarrizketa asko egin eta hitz on asko bilatzea.

Herri-telebistan ere lan egina da kazetari saritua. Oarso Telebistan, hain zuzen, erreportaia laburrak eginez. Jakina denez, hala ere, telebista eta irratia ez dira gauza bera: telebistak irudia du, eta irratiak ez. Hortaz, Oihane Yustos saiatzen da berak kontatzen duena entzuleek beren buruan irudika dezaten.

OHORE HANDIA
Kazetari Berria ataleko irabazleak ohore handitzat jo zuen Rikardo Arregi saria jaso izana. Epaimahaiak egin zizkion goraipamenak ere eskertu zituen –“hari finez lotutako gaiak sakonki landu ditu, eta goxotasunez”, epaimahaiaren idatzian ageri denez–, are gehiago kontuan harturik urte bete besterik ez daramala lanean. Oihane Yustosek, bestalde, lanbidean aurrera egitea oso zaila dela esan zuen, eta kazetari berriei atek ireki nahi lizkiekeela. Saria estimatu eta lan-kideengandik jasotako aholkuak eskertu zituen, teknikarien irakaspenak batik bat.

